



GEISTER / GHOST SONG • Alemania

Fatih Akin (zuzendaria, gidoilaria, ekoizlea), Mariam Dawoud, Eren M. Güvercin, Carlotta Von Falkenhayn, Gabriel-Winner Amorin (antzezleak), Herman Weigel (ekoizlea), Malakoff Kowalski (konpositorea)

Fatih Akin: “Filmak egitea oreka bat aurkitzea da, arauak haustea ere bai”



Fatih Akin zuzendaria, bigarrena eskuinetik hasita, eta bere filmeko protagonista gazteak.

JORGE FUEMBUENA

SERGIO BASURKO

Fatih Akinen film berriaren mundu-estreinaldiak eman dio hasiera Urrezko Maskorra eskuratzeko lehiari. Eta asmo horrekin, zuzendari alemaniarrek maitasuna eta heriotza txirikordatzan dituen ametsaz ehundutako kontakizuna proposatu du.

Farashak eta Farisek hoguei urte dituzte graduazio-festan elkar ezagutzen dutenean: begirada bat nahikoa

izango da guztia aldatzeko. Alabaina, Farasha hil egingo da gau horretan, eta Farisengandik bereizi nahi ez duenez, munduen arteko muga zeharkatzeko modua deskubrituko du: 40 gau eta 40 egunez, Farisekin elkartu ahalko da ametsetan. Hala, maitasuna haziz joango da, azken gauera arte.

Akinek uste du filmak ere ametsak direla, amets baten barruko ametsak, eta zinematik berak baduela sendatze-

ko gaitasuna. “Zinema ez da entretenimendu hutsa. Niretzat, esaterako, heriotzaren gaiari heltzea, heriotza zer den eta pertsonaiei nola eragiten dien... hori dena sendagarri gertatzen zait. Filmak egitea oreka bat aurkitzea da, arauak haustea ere bai”, deliberatu du.

Errealitatearen aniztasuna ere agegrian geratzen da *Geister* filmean. Hanburgon dago kokatuta pelikula, eta bi protagonistek dute jatorri ez-ale-

maniarra. Batak arbaso turkiarrak ditu, eta besteak siriarrak. Aniztasun kultural horren inguruan ere mintzatu da jatorri turkiarreko zuzendari alemaniarra: “Bi mundu daudela uste dut; albiste faltsuek, telebistak, sare sozialek eta politikariek marrazten digutena, batetik; eta, kalean ikusten duguna, bestea. Ni kaleko mundu horretan bizi naiz, eta kalean nagoe-nean ikusten ditut familia siriarrak, turkiarrak eta auskalo nongoak; hori da gure gizartea”.

Geister koloretan filmatu bazen ere, Zinemaldian erakutsi duten kopia zuri-beltzekoa da. Izan ere, Akinek azaldu du hasiera batean bere ideia anime japoniarren itxura ematea zela. “Film baten postprodukzioan, kolorearen gainean bukaeran egiten da lan, baina ez nintzen emaitzarekin gustura gelditu. Orduan, erabaki genuen kolorea kentzea, eta zuri-beltzean utzi genuen”. Gainera, Akinen iritziz, zuri-beltzak pelikularen “existentzialismoa” azpimarratzen du. Nolanahi ere, zinemagileak jakinarazi du koloretako bertsioa ere badela.

Filmeko protagonistek berretsi egin dituzte zuzendariaren hitzak, eta filmaketa osoan izan zuten gogo bizia nabarmendu dute. “Gidoiak nolabaiteko alde espiritual eta sendatzailea du”, azaldu du Eren M. Güvercinek. Mariam Dawoudek, bere aldetik, prozesu guztian izan duten “sormen askatasuna” azpimarratu du: “gero eta ekoizpen komertzialagoak egiten direnean, proiektu honek benetako interpretazio-lanak zer esan nahi duen gogorarazi digu aktoreei”.

When love outlives death: Fatih Akin’s *Geister*

Fatih Akin opens the Official Selection with *Ghost Song*, a mesmerising tale woven from grief, love, and longing. Farasha and Faris, both 20, cross paths at a party, but Farasha dies that very night. For 40 nights, she visits Faris in his dreams, turning their encounter into a farewell. The story began with an idea Akin’s son had at ten, growing alongside his children and mirroring his journey as a father and storyteller. While filming, Akin lost his own father, and for a time, found himself unable to dream of him, becoming frustrated. Raised by religious parents, Akin has always woven spirituality into his films. With *Ghost Song*, he explores mourning as a universal ritual, both speaking to believers and sceptics, using cinema as a way to face loss, process grief and find healing, especially for the young. Drawing early inspiration from Japanese anime like *Suzume*, the film embraces a stark, dreamlike black-and-white palette. As Akin says, when two people fall in love and one is lost, it can feel like the world has ended. *Ghost Song* is his search for a path through that darkness.

SUBTITLING:
CC & SDH



AUDIO DESCRIPTION



VOICE-OVER
& DUBBING



SCRIPT
LOCALIZATION



TECHNICAL & SWORN
TRANSLATION



TRANSCRIPTION
& TIMECODING



Translation services:

→ all languages, all formats,
all your needs. ¶

... and more, and more, and more, and more!

www.
maramara
mm@maramara.net

+34

943

504

206